Zk-2797

AGINDUA, 2000ko maiatzaren 16koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Abadiñoko (Bizkaia) «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea aztertu da. Hona hemen

AURREKARIAK

1.– Pedro Ibarra Güell jaunak, «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol» sortu zuen Bilbon (Bizkaia) 1998ko abenduaren 23an, Ignacio J. Gomeza Eleizalde Bilboko Elkargoko notarioaren aurrean egindako eskritura publiko batez (2.808 protokolo zk.). «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol»-en eratze-eskritura zuzendu eta osatu egin zuten Bilbon bertan 2000ko martxoaren 6an, notario berak baimendutako eskritura publiko biren bitartez (518 eta 519 protokolo zk.).

2.– «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol»-en xedea, estatutuetako 5. artikuluan jasotakoaren arabera, hau da:

«...Parte hartzea, elkartasuna, elkarlaguntza eta zuzentasunaren gaineko baloreak praktikan jartzen dituzten banakako zein taldekako esperientziak (sozialak zein politikoak) sustatu eta zabaltzea; bestalde, esperientziak lehen burutakoak, gaur egungoak zein aurrera begira aurreikusten direnak izan daitezke. (...)».

3.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 3. artikuluan adierazten den moduan, hau da: Mendiola kalea 42, Abadiño (Bizkaia). Jardute eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da, batez ere.

4.– Hasierako dotazioa hogeita hamar milioi (30.000.000) pezetakoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu 404/1994 Dekretuaren 31.1.c artikuluak.

Ondarea askitzat jotzen da fundazioaren lehenengo programa lortzeko, aditu independente batek egindako bideragarritasuneko ekonomia-azterketak erakusten duenez —hala eskatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 9. artikuluak—. Azterketa hori administrazio-espedienteari erantsi zaio.

5.– Fundazioa gobernatzea eta administratzea Patronatuari utzi zaizkio. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 10. artikuluan jartzen duen moduan.

N°-2797

ORDEN de 16 de mayo de 2000, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol», de Abadiño (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.º.– Por D. Pedro Ibarra Güell se ha constituido la Fundación denominada «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol», mediante escritura pública otorgada en Bilbao (Bizkaia) el día 23 de diciembre de 1998 ante el Notario del Ilustre Colegio Notarial de Bilbao, D. Ignacio J. Gomeza Eleizalde (N.º protocolo 2.808). Dicha escritura de constitución fundacional de «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol» fue objeto de complementación y rectificación en Bilbao en fecha 6 de marzo de 2000 mediante sendas escrituras públicas autorizadas por el mismo Notario (N.º de protocolo 518 y 519).

2.º.– El fin fundacional de la denominada «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol», según establece el artículo 5.º de su norma estatutaria es,

«…la promoción y difusión del conocimiento de cualquier experiencia individual o colectiva (social o política), pasada, presente o previsible, en las que se pongan en práctica los valores de participación, solidaridad, cooperación y equidad.(...).»

3.º.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 3.º de los Estatutos Fundacionales, queda fijado en Abadiño (Bizkaia), C/Mendiola n.º 42, y el ámbito territorial de actuación se extiende principalmente el de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

4.º.– La dotación inicial asciende a treinta millones de pesetas (30.000.000), cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 31.1.c del Decreto 404/1994.

La dotación patrimonial, se acredita como suficiente para la consecución del primer programa de actuación fundacional, conforme se desprende del Estudio Económico de Viabilidad elaborado por experto independiente, que ha sido aportado al expediente administrativo en cumplimiento del citado artículo 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

5.º.– El gobierno y administración de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 10 de los Estatutos fundacionales.

6.– Patronatua, estatutuetako 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, gutxienez bost (5) kidek eta gehienez zortzi (8) kidek osatuko dute.

Hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran jartzen duenez, hauek izango dira Patronatuko kide:

Lehendakaria: Pedro Ibarra Güell jauna.

Lehendakariordea: Carmen Oriol López Montenegro andrea.

Bokalak:

María Ibarra Oriol andrea.
Santiago Ibarra Oriol jauna.
Laura Ibarra Oriol andrea.
Alfonso Dubois Migoya jauna.
Ramón Zallo Elguezabal jauna.
Isabel Ribera Domene andrea.

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1. artikuluaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eratzea inskribatzeko espedienteari ebazpena ematea, agindu-bidez. Hala dago aginduta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Arautegia onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 7.a) artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 31. eta 34. artikuluetan agindutako betekizunak konplitu dira.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeak fundazioaren eraketa inskribatzearen aldeko txostena eman du, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 36.3 eta 40.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Arautegia onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 13. artikuluan agindutakoa betez.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal

6.º.– El Patronato, conforme dispone el artículo 11.º de los Estatutos fundacionales, estará constituido por un mínimo de cinco (5) miembros y un máximo de ocho (8) miembros.

Inicialmente, tal y como se desprende de la escritura de constitución fundacional, el Patronato estará compuesto por los siguientes miembros, que se pasan a relacionar:

Presidente: D. Pedro Ibarra Güell.

Vicepresidente: Dña. Carmen Oriol López Montenegro.

Vocales:

Dña. María Ibarra Oriol.
D. Santiago Ibarra Oriol.
Dña. Laura Ibarra Oriol.
D. Alfonso Dubois Migoya.
D. Ramón Zallo Elguezabal.
Dña. Isabel Ribera Domene.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, dictar, mediante Orden, la Resolución del expediente de inscripción de constitución de la fundación sobre la base de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 7-a) del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco y 31 y 34 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre.

Tercero.– La Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 36.3 y 40.2 de la Ley 12/1994,de 17 de junio, de fundaciones del País Vasco, y 13 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco, ha informado favorablemente la inscripción de la constitución de la citada Fundación.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el

Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Arautegia onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretua eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Egun honetan, F-85 zenbakiaz, Abadiñoko (Bizkaia) «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Arautegia onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 14. artikuluan agindutakoaz bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu hau azkena da administrazio bidean. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hilabete biko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko maiatzaren 16a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco con esta fecha y bajo el número de registro F-85, de la constitución de la denominada «Betiko Fundazioa Ibarra Oriol», de Abadiño (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato, integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha fundación en virtud de sus fines en la Sección 4.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de mayo de 2000.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.